

BALEIKE



ALONDEGIA

**10 URTEZ KULTURAREN
ATERPE**



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK GOI MAILAKO ZIKLOA Zumaiako Institutuan

Aurrematrikulazioa maiatzaren 31tik ekainaren 18ra
Ate irekiak maiatzak 10, 11 eta 13. 16:30-19:30

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

idazkaritza@zumaiabhi.eus · 943-89 92 53



ENDANĒTAK
ez du saldu
bakarririk egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaiako.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



BALEIKE 309

2021-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Hitz tantak Jabi Gonzalez Toston
<i>Ainhoa Larrañaga</i> | 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Noiz kendu fardela?</i> |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Koloreak</i> | 26 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Aitor Manterola
<i>Dina Bilbao</i> | 29 | Osasuna Rosa Azkue
<i>COVID-19-aren txertoa (I)</i> |
| 9 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Akabo</i> | 31 | Zientzia eta ingurumena
Gonzalo Torre
<i>Biharamuna hari batean</i> |
| 10 | Erreportajea Maria Maya
Manterola
<i>10 urtez kulturaren eta artearen birika</i> | 37 | Orduan bai Imanol Azkue Ibarbia
<i>Urpetik azalera</i> |
| 16 | Elkarrizketa Dorleta Agiriano Lai
<i>Jessica Guzman eta Silvia Carrizo:
"Beti ibiltzen gara maleta batekin"</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Jose Manuel Castillo, postaria</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Gaztetasunetik 'normaltasunera'
hazteko bidearen kronika</i> |
| 24 | Bazkidetza | 45 | Nire txanda Juanma Gurrutxaga
Zubizarreta
<i>Truman Capote burura</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Pepe</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Maria Maya Manterola
mmaya@ukt.eus
Erredaktore taldea
Juan Luis Romatet
Onintza Lete Arrieta
Imanol Azkue Ibarbia
Dorleta Agiriano Lai

Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
publizitatea@baleike.eus

Administrazio

arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Ainhoa Larrañaga

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: UTZITAKOA

19 urte baino ez dituen arren, Ainhoa Larrañagak (Zumaia, 2002) arrakasta ugari erdietsi ditu eskubaloi atezain gisa. 2019ko udan, Europako Hondartzako Eskubaloi Txapelketa irabazi zuen Espainiako selekzio jubenilarekin; iaz, lehen mailan eta EHFko Europako Kopan egin zuen debuta Bera Berarekin, eta aurten lehen mailara igotzeko *play off*era sailkatu da Bartzelonako Sant Vincenç taldearekin.

Zerk eraman zaitu Bartzelonara?

Ikasketek. Biomedikuntza gradua ikasten ari naiz eta Bartzelonan eta Madrilen soilik eskaintzen dute. Bi aukeren artean Bartzelonak gehiago erakertzen ninduen.

Pandemiak utzi dizu hiria ongi ezagutzen?

Urte arrunt batean gauza gehiago ikusteko aukera izango nuen. Bartzelonako gaueko giroa, esaterako. Hondartzatik gertu dagoen ikasle egoitza batean bizi naiz, eta inguru horretan mugitzen gara, batez ere.

Nolakoa da zure egunerokoa Bartzelonan?

Goizetan klaseak izaten ditut. Nire gelatik jarraitzen ditut online direlako. Praktikaren bat dudanean soilik joaten naiz Unibertsitatera, baina ez da oso ohikoa. Klaseak amaitutakoan, ikasle egoitzan ditudan lagunekin bazkaltzen dut, eta arratsaldeetan eskubaloi entrenamenduak izaten ditut astean hirutan. Arratsalde osoa joaten zait egun horietan; hiriburutik kanpo dagoen beste herri batekoa da taldea, eta ordubeteko bidaia izaten dut haraina.

Zer moduz daramazu eskubaloia eta Unibertsitateko ikasketak uztartze hori?

Espero baino hobeto. Pandemiak aisialdirako aukerak murriztu ditu eta horrek ikasketetan zentratzen lagundu dit. Hasieran apur bat kostatu zitzaidan klaseak katalanez hartzera ohitzea, baina lortu dut, eta orain arteko ikasgai guztiak gainditu ditut.

Unibertsitateko lehen urteak aldaketa handiak ekarri ohi ditu. Herrian, txikitatik alboan izandako lagunengandik banandu eta kanpora irteten zara. Zure kasuan, zer esanik ez. Zeren falta sumatu duzu, batez ere?

Etxeko janaria. Baina edozein momentutan kalera atera eta ezagunen bat topatzearen falta ere asko igarri dut. Zumaian beti aurkituko duzu lagun bat, hemen gutxiago ateratzen dira kalera.

Halere, iaz Bera Beran aritu ondoren, esan liteke Bartzelonara beroketa eginda iritsi zirela. Lagungarri izan zaizu?

Pulpon kuadrillako lagunekin jokatzetik eskubaloia serioago hartzera pasa nintzen. Orduan ohitu nintzen bidaia egitera eta orain eskertzen dut, bai.

Nola egokitu zara talde berrira?

Iazko itxialdi zorrotzean egin nuen harremana entrenatzailearekin eta banekien Bartzelonara etorri zere Sant Vicençen arituko nintzela. Amak hemen duen lagun baten bitartez topatu nuen taldea. Hark eskubaloi entrenatzailea den iloba bati eman zion nire berri, eta egun dudan entrenatzaileak berehala idatzi zidan atezain bat behar zutelako. Taldeko beste bi jokalarire ere ezagutzen nituen aurrez. Espainiako Junior selekzioan taldekide ditut, eta asko lagundu didate talde giroan sartzen.

Aurkitutakoak harritu zaitu?

Asko. Ez nuen espero lehen mailara igotzeko fasera sailkatuko ginenik. Oso talde gaztea dugu, jokalariz zaharrenak 24 urte ditu eta ligako gure multzoko maila oso handia da. Zilarrezko mailako gainerako multzoekin alderatuta, gurea parekatuena dela esango nuke. Talde guztiak dira oso onak. Orain, noski, maila are handiagoa izango da. Multzo bakoitzeko bi talde onenak sailkatu gara, zortzi guztira, eta lehen mailara bi igoko dira soilik. ■■■



Koloreak

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Zuri-beltzeko gizarte triste eta goibel batean bizi garela badirudi ere, koloreek badute presentzia gure mundu triste honetan. Koloreen lehertzea dakar udaberriak; koloreen espektro guztia suma daiteke naturan. Baina, orain aste batzuk bi kolore besterik ez ziren izan hedabideetan, tabernetan edota berriketetan. Batzuen gorria, besteen urdina, betiere kolore eza adierazten duen zuriarekin nahasita. Batek

irabazi zuen, besteak galdu. Baina munduak aurrera jarraitzen du, zuri-beltzean askotan, kolorez blaituta besteetan. ■■■

Datu teknikoak:

Kamera: Nikon D750

Objektiboa: Sigma 24-35 mm f2 ART

Foku distantzia: 35 mm

Diafragma: f3.2

Obturazio abiadura: 1/50 seg.

ISO: 1600

Instagram: [@arnaitzrubiophoto](https://www.instagram.com/arnaitzrubiophoto)





Dina Bilbao

Emakume kirolari ondarroar hura, Orbea txiririndulari talde aitzindari hartako kideetako bat, triatloian ibili zena gero, bidaiari izukaitza eta ausarta, bide urratzailea hainbat esparrutan, eta beste gauza asko. Dina lagunentzat, “la rubia”, Arantxa Orbegozo lagunak, taldekideak eta bidaideak oraindik ere deitzen dion bezala. Itsasoak edan zuen 1997ko ekainaren 24an, Karibe Itsasoan, Josu Ross Iztueta bikotekidearekin batera. “Gauza handiak egingo zituen bizi izan balitz. Erreferentzia izango zatekeen”. Orbegozok esan dizkit hitzok duela gutxi, erreportaje baterako.

Dina Bilbao triatloian ibili zenean, Ironman delakoak egiten (gizonezkoentzat

bakarrik zela pentsatuko zuen izena jarri zionak), jarraitu egiten nituen haren emaitzak. Etxean aitari galdetzen nion: “Zenbatgarren egin du Dina Bilbao?”. Neure baitako pentsamenduaren errotari buelta gehiago eraginez, ondorio honetara heldu nintzen: niretzat lehen emakume kirolari erreferentzia izango zen, ni neu konturatu gabe. Duela 30 urteren bueltan. Eta burua gehiago estutuz, galdera hau: “Orduan, ba al zen emakumezko kirolari erreferentziakorik?”. Erantzuna, neronek, azkar batean: “Ez”. Dina Bilbaoren garaikideekin pentsatzen hastarekin bat, bi emakumezko gogora, betiere bakarkako kirolarien artean: 1984ko Olinpiar Jokoetan,

maratoian, burua eta gorputza alderrai zituela azken 200 metroak bi minutu eta erdian egin zituen Gaby Andersen-Schiess suitzarra, batetik; eta lau urte geroago, Olinpiar Jokoetan hura ere, Florence Griffith-Joyner korrikalari azkarra, hiru urrezko domina irabazi zituen; baina ezagunago egin zutena kasik eskuetako azkazal luzeengatik. Buruak lanean segitzen zidan, gaiaren inguruko pentsamenduaren katebegiak elkarri lotuz: “Hortaz, garai hartan, emakumezkoak albiste izateko edo haien kirol jarduna nabarmentzeko, ezohiko gauzengatik gertatzen zen”. Maratoiko helmugaratze malapartatua, eta azkazal luze batzuk, esate baterako.

Atzoko kontuak dira horiek. 20-30 urte *atzo* baita. Orain,

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Akabo

Hara, pasa diagu 400eko langa, akabo". "Orduan, asteburuan nola zeudek tabernak?". "Terrazan bilatu behar tokia, beste erremediorik ez diagu". "Ni tan mal". "Ez, ez. Asteburu honetan libre, astelehenetako datuak hartzen dizkitek kontuan". "Baina nola, dena libre?". "Ez duk hala izango". "Baietz, ba. Hala esan ditek". "Bale, bale. Ni ez nauk aklaritzen...".

Luze egiten ari zaigu gazteoi eta ez hain gazteoi dioxosokko zomorroak eragindako errealitate berrian irautea, eta ulertzeko zail aurrera eta atzera egiten duten neurri asko. Batzuetan uste dugu neurriak gehiegizkoak direla. "Kasu asko atzemandako herriak ixten badituzte, zertarako da beharrezkoa Gipuzkoa ere ixtea?". Beste batzuetan, merezi ditugula. "Garbia zuan Kopako finalaren ostean igoera iritsiko zela...". Eta bada burua lehertzear duenik ere. "Nik jada ez zakiat zer sinistu".


Argi dagoena da txertoa dugula esperantza, deitu hari Astra Zeneca, Pfizer, Moderna edo Sputnik. "Hi, errusiarra jartzen baditek, ezingo duk zerbezarik hartu denboraldi batean". "Ba, besteaz ez ditek ezer onik esaten. Beti badik arazoren bat...". "Ba, niri berdind zaidak zein, baina iritsi dadila eguna esateko: 'Kristo guzti hau bukatu duk, akabo'". ■

emakumezko kirolari erreferenteak gehiago dira lehengo aldean. Atera kontuak: *atzo* gaizki ikusia zegoen emakumezkoek kirola egitea ere. Zorionez, Dina Bilbao asko daude gaur egun, eta gaztetxo edo haur batek eskura dauzka, begien parez pare. Lehen ez bezala, lekua ematen diegu hedabideetan, oraindik ere berdintasunaren marratik aparte bagabiltza ere, zoritxarrez. Badago zer eginik, eta egiten dena egiten dela ere, ez da nahikoa izango. Alegia, behin eginda ez dela nahikoa izango, askotan egin behar dela, etenik gabe.

Dina Bilbao eta haren lagunak ez omen ziren jabetzen bide urratzaileak zirenik: kirola gustatzen zitzairen, eta "gizonezkoek egiten badute, guk zergatik

ez?!" buruan sartu eta aurrera. Denborarekin jabetu dira zer bide itxi eta ilun hasi ziren zabaltzen eta argitzen. Esate baterako, Leire Olaberria txirrindulari ohiak hau esan zienean Dinaren lagunei: "Ni zuengatik hasi nintzen txirrindulari munduan. Zuek ikusita piztu zitzaidan gogo".

Itsasoan hil zen Dina, eta ur tanta bakoitzak lurra jotzen duenean, bide urratzaile ausart haren zipriztinak kolpetxoa ematen dio genero ezberdintasunaren haitzari. Zumaiar arraunlari ohi batek esaten duen bezala: "Gauzak horrela ere aldatzen dira. Itsasoak haitza jotzen duen bezala, kolpe bakoitzean, ttak". Gutako bakoitzaren baitan daukagu itsaso hori, ur tanta eraldatzailez bete. ■



10 urtez kulturaren eta artearen birika

Hogei urte igaro dira udal ordezkariak Alondegia berritzeko beharra azaldu zutenetik; hamar berritu zenetik. Haur eta helduen liburutegiez gain –bi espazio horiek hartzen dituzte Alondegia-ren bi heren–, kultur ekimenean aterpe izan da Oxford aretoa azken urteotan.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.

2011ko maiatzean zabaldu zen Alondegia berritua. Hauteskunde bezperak zirela eta, orduko udal gobernua ezin izan zuen inauguraziorik egin, baina bai herriari eraikina bisita gidatuen bidez erakutsi. Foronda erabiltzen da oraindik ere beste zeregin batzuetarako, baina 2011z geroztik, Alondegia da kultur etxea.

Nolakoa zen, ordea, lehengo Alondegia? Miriam Romatet kultur teknikariak ondo gogoan du, Ikastolako irakasle jardun baitzuen bertan: “Ikastolaren gela bat zegoen hemen [gaur egun kultur bulegoak dauden lekuan]. Oxford aretoa, berriz, beste era batera zegoen zatituta. Antzokian oholtza bat zeukan jarrita ikastolak, eta ziur *BALEIKER*en irakurle asko hor antzerkia egindakoak izango direla, Mitxel maisuarekin. Goian, berriz, gelak zeuden; eta solairuarteetan, gelatxoak balkoi batekin”. Romatetek gogoan du plastika emateko erabiltzen zituzten gela batzuk ere bazeudela goian, eta alboan, Arritxu Aginagaldek eta Arritxu Goikoetxeak erabiltzen zuten Biarri eskulanean gela.

Goiko gela haietan, udal langileak bizi izan ziren. Izan ere, lehen, Administrazioak etxea ematen zien udal medikuari eta idazkariari, besteak beste. Romateten aburuz, “film bat errodatzeko moduan” zegoen leku hura lanak egin aurretik: “Paper pintatuak erdizka

erorita zeuden, hutsik, koltxoiren bat edo beste ere bai... denbora askoan utzita egon ziren”. Lanak egin zirenean eraikinaren altuera handitzeko aprobeixatu zen, eta ikasketa gela izango zenari altuera emateko baliatu zituzten goiko pisuak. Bizilagunei argitasuna kentzearen trukean, eraikinak altuera eta igogailu publikoa irabazi zituela azaldu du Romatetek.

Erabilera anitzeko Oxford gela izan da urteotan erabiliena. Lehen, erakusketak leku berean egiten zituzten, baina gaur egun areto argitsu bat dagoen lekuan, “zulo” bat zegoen. “Altuera handia zeukan, baina zulo hutsa zen. Ni lanean hasi baino lehenago arte taldeak erakusketa pare bat egin zituen”, dio Romatetek. Hasierako asmoa “erakusketa gela duin bat edukitzea” izan arren, “gauza guztiak egiteko gela” bihurtu da aretoa. Horrek erakusketa orduak kentzen ditu, Romateten hitzetan: “Hor badugu borroka bat. Artista batzuek esaten dute erakusketei ordu gehiago eman behar dizkiegula; beste batzuek, berriz, aretoa Udalaren jabetzako espaziorik onena dela eta ahalik eta gauza gehienetarako erabili behar dela”.

Garai batean Alondegari Oxford izenez deitzen zitzaion, eta izen hori erabiltzearen historiari keinu bat egin nahi izan zioten beheko solairuko aretoari horrela deituta, Romatetek azaldu duenez. Garai batean Zarauzko Antonianoetara joaten ez ziren gazteak hor ikasten zuten profesionala, Lanbide Heziketa. Eskola xume hari unibertsitate titulua eman zion Oxford izenak.

Ismael Manterola kultur programazioko aholkulari lanetan aritu da azken urteotan. Haren hitzetan, udal areto bihurtu denetik, ez da artera soilik bideratu, baina “horrek horrela izan behar du”. Udal areto izateak, bestalde, programazioan oreka bat bilatzera daramatza: “Oreka bilatu behar da herrian egiten diren gauzen





eskaparate bat edo erakusleiho bat izateko, eskaerak bideratzeko, eta, azkenik, guk nahi duguna programatzeko”, dio Manterolak.

Azken urteotako balantze baikorra egin du Manterolak oreka horri dagokionean. “Nik uste dut bilatu dela oreka bat gauza horien guztien artean. Programazioan eta jendearen erantzunean ere bai. Eskura daukanean, gainera, jendeak ondo erantzuten du”. Daniel Carballo arkitektoa bat dator baieztapen horretan Manterolarekin. Carballok azaldu du 1990eko hamarkadan Oxford aretoa erabiltzen zutela

erakusketak edota arte lantegiak egiteko: “Erribera kaleko Alondegiko Oxford arte lantegian, momentu oro, Erribera kaleko giroa sartzen zitzaigun. Bisitariak izaten genituen, nahitaez. Foronda erakusketa aretoan, aldiz, bisitari bakanak izaten ziren”.

Bestetik, liburutegia herrira jaitea ere aldaketa garrantzitsua izan zen. Arantxa Eizagirre liburuzainak gogoan du “ipuin batetik ateratako jauregi batean” egin zuela lan, baina aldapa hura igotzea kosta egiten zela. Herrigunetik urrun ez egon arren, irisgarritasuna zen oztopo nagusia, Eizagirreraren arabera. Alondegia zabaldu zenetik, nabarmen egin du gora erabiltzaile kopuruak. Pandemia hasi aurretik, lekuri gabe ere geratu izan dira hiru solairuko liburutegian. Feli Uria da liburutegiaren erabiltzaileetako bat. Erabiltzaile ez ezik, “miresle” ere bai, bere hitzetan: “Hain nago harro liburutegiaz!”. Kanpotik bisitan datozkion lagunak liburutegira eraman ohi ditu Uriak herriko “harribitxia” erakustera, baina galdera luzatu die zumaiarrei: “Herritar guztiok ezagutzen ote duzue barrutik?”. Egunkari edota liburu gogokoa hartu, eta jarleku eroetan tarte gozoa pasatzera gonbidatu ditu herritarrak Uriak.

Bestalde, kultur teknikariak kontatu du “oso eskura” daudela kultur bulegoak, eta batzuetan, ordua eskatu gabe ere pasatzen dela jendea. “Ez dugu ahaztu behar Forondan ere erakusketak egiten genituela. Hala ere, herrigunean egotea jende guztiaren inbidia da”, esan du kultur teknikariak. Halaber, “soberan ez dago ezer”. Handia da eraikina, baina bi heren liburutegiak hartzen dituela dio. Gainera, COVID-19aren hedapena ekiditeko neurrien eraginez, edukiera asko jaitsi da geletan. “Egoera normalera” itzultzeko itzaropentsu da Romatet, kulturak berriz ere bere martxa har dezan.

Carballok 1999ko *BALEIKE* aldizkarian Alondegia kultur gune, *kunstaal* edo halako zerbait bihurtzeko aldarrikapena egin zuen. Herriak izan duen “hirigintza erabakirik garrantzitsuena” izan da Alondegia kultur gune bihurtzea, arkitektoaren ustez. “Lekuak merezi duelako, eta kulturak leku hori irabazi duelako Zumaiako kulturaren historian”.

ALDAKETA GARRANTZITSUA IZAN ZEN LIBURUTEGIA HERRIRA JAISTEA

ERAIKINA HANDIA IZAN ARREN, "SOBERAN EZER EZ" DAGOELA USTE DU KULTUR TEKNIKARIAK



Haur liburutegia ezagutzen, 2011n.



Metal topaketak, 2012an.



Big Boy taldearen kontzertua, 2013an.



Inauterietako argazki txokoa, 2014an.



Shakti Olaizolaren emanaldia, 2015ean.




'Euskara, bestela ez gara' zikloko hitzaldia, 2018an.



Gabon Korua, 2017an.



Emakumeon* Etxea eta ZUMB, 2019an.



Zigor Garciaren erakusketa, 2020an.



'Sugarren mende' liburuaren aurkezpena, 2021ean.

"Hamar urte jada!"

ARANTXA EIZAGIRRE LIBURUZAINA

Liburutegiko erabiltzaile gaztetxoek Alondegiko liburutegia besterik ez dute ezagutu txikitatik. Ez dute gogoratzen, behin batean, ipuin batetik ateratakoa zirudien jauregitxo baten zegoela herriko liburutegia. Beste askok bai, izan genuen Forondako markesen etxe eder eta bitxi hartan irakurtzeko, ikasteko eta lan egiteko aukera.

Baina aldapa hura igotzea kostatu egiten zen. Herrigunetik urrun ez zegoen, baina irisgarritasun zailtasunak zituen zenbaitentzat. Alde



horretatik, asko irabazi genuen Alondegira etorritakoan.

Erabiltzaile kopuruaren igoera berehala nabaritu genuen.

Eraikina Forondakoa baino askoz ere handiagoa da:

orain liburutegiak hiru solairu ditu, horietatik oso bat haurrentzat, txikienezakoko txoko berezi batekin; eta goi-goian ikasteko gela handia solairu polit eta argitsuan.

Sarri pentsatu izan dut horrelako bista ederrekin ez dela erraza izango ikasketetan kontzentratzea, baina oker nabilela dirudi, askotan lekurik gabe ere geratu izan baikara.

Isiltasuna eskatu ohi dugu liburutegietan, baina pandemia dela eta ustekabeen etorri zaiguna gehiegizkoa da. Ea laster entzuten ditugun berriro haur, gazte zein helduen pauso hotsak eskaileretan gora eta behera, Mari kaleko plazatxoan berrikeretan eta barrez, ikastera edo talde lanak egitera etorri eta atsedentxo bat hartzen, ea laster ditugun gure artean berriro egunkariak patxadan irakurtzera etortzen direnak edo tresna digitalekin ondo moldatu ez eta gustuko liburuak apal artean aukeratzeko ibiltzeko irrikitan daudenak.

Ea hurrengo urteko maiatzean Alondegia 11. urteurrena liburutegia jendez beteta ospatzeko aukera dugun!

"Bilboko Alondegian kuboak eta Narkis Balentziaga Forondan"

DANI CARBALLO ARKITEKTOA

1989. urtean, arkitektura karrera hastear nengoela, Gorordo alkateak proposamena eskatu zien Oteiza, Saez de Oiza eta Fullaondori Bilboko Alondegian euskal kultura eta arte garaikidearen gunea izango zen kubo bat eraikitzeko. 1999. urtean, arkitekto nintzelarik, Alondegia kulturagune, kunstaal edo halako zerbait bihurtzeko aldarrikapena egin nuen, **BALEIKEN** iritzi artikulu batean.

Uda haietan Alondegiko behe solairuko gela erabiltzen genuen erakusketak, arte lantegiak edo udako ekitaldiak edo elkarten bilerak antolatzen. Bat, esaterako,

Narkis Balentziagaren arte lantegia izan zen. Lantegian parte hartu nuen, margolari arroar haren berri handirik izan gabe.

Oxford arte lantegianakaleko giroa sartzen zitzaigun. Bisitariak izaten genituen, nahitaez. Forondan, aldiz, bisitari bakanak izaten ziren. Uda giroko arratsaldeak igarotzen nituen erakustoki huts hartan, artea inori axola ez zaion sentsazioarekin. Axola zitzaion bat Jorge Oteiza izan zen. Forondara etorri zen Narkis Balentziaga lagunaren erakusketa ikustera. Jorgek



Narkis goraiatu zuen, baita erakusketa hura bultzatu zuten artezale gazteak ere, euskal kulturaren euskarriak zirela sutsu aldarrikatuz.

Nire ustetan, herriak izan duen hirigintza erabakirik interesgarriena izan da Alondegia kulturagune eta liburutegi bihurtzea herriaren erdian. Lekuak merezi duelako, eta kulturak leku hori irabazi duelako Zumaiako kulturaren historian. 1999. urtean egindako aldarrikapena gauzatu ikusita, eskerrak eman behar dizkiegu ondare eraikia erabilera publikora bideratzea erabaki zutenei.

"Garai bateko ameskeria zena"

FELI URIA ERRETIRATUA

Gaztetxotan, gure aitaren lantegi koxkorrean aritzen nintzen, beste senideekin batera.

Altzariei lixa pasa, argizaria eman... Lasai ederrean, gustukoa ez banuen ere, dena esan behar bada. Ahizpa eta bion lanpostua sarreran zegoenez, hainbat bisitari izaten genituen egunean zehar: zela postaria, bankuko kobratzailea, garraiolaria, saltzaileak... Baina denetan bitxia herriko burdindegikoarena izaten zen. Pertsonaia berezia.

Bai, gizon jantzia bera, ez bakarrik soingaineko gris batez etortzen zelako, ez. Emiliok,



gure aldean, mundu ikuspegi oso zabala zuen, eta nago, bere laneko zereginari baino garrantzi handiagoa ematen ziola gu, koitaduak, hezteari.

Berak kirola eta kultura maite zituen, eta apaiz baten

mistizismoz jarduten zitzaigun, kirola zela medio, herri arteko harremanaz, kultur trukaketak zekarren onuraz eta abarrez.

Ordu erdi erraz pasatzen zuen, guretzat, dena esatera, fikziotik gehiago zeukaten kontuekin. Gehien aipatzen zuena, baina, kontu izarra, kultur etxearena izaten zen, horiek atzerrian ba omen

zeuden. Hori zen bere ametsa eta Euskal Herrian ere horrelakoak behar genituen.

Eta hara nondik, urte mordoxka pasata, noski, Euskal Herriko herri gehientsuenak kultur etxez eta kiroldagiz hornituta ikusten ditugun. Baina Zumaiaiko Alondegia adinakorik zaila, e!

Foronda ezagutu genuen eta baliatu ere bai. Baina Alondegira, herriko kalera, ekartzeak berebiziko eragina izan du erabilerari dagokionez. Ni erabiltzaile ez ezik, miresle ere banaiz, hain nago harro batez ere liburutegiaz.

Horregatik, niregana etortzen diren kanpotar lagun edo senideak bertara eramaten ditut Zumaian daukagun harribitxi hau erakustera.

"Artea guztion eskura"

ISMAEL MANTEROLA EHUKO IRAKASLEA

Erakusketa aretoa eskura dago. Berdin du zer erakusketa dagoen; jendea sartu egiten da, eta gustatzen ez bazaio, irten. Jendeak ohitura hartu du kultura eskura izateko. Hori erraztea beti dago ondo. Abantaila izan da, alde horretatik. Antolatzen diren gauzak herrikoiak dira, baina baita ohitura ezberdinak pixka bat martxan jartzeko modukoak ere. Alde batetik, jendeak erosotasuna bilatzen du; baina, bestetik, gauza ez horren herrikoiak edo errazak ikustera ere ohitu egin da. Hor asmatu da.

Udal areto bat da; beraz, oreka bilatu behar da herrian

egiten diren gauzen eskaparatea edo erakusleihoa izateko, eskaerak bideratzeko, eta, azkenik, guk nahi duguna programatzeko. Kanpoko gauzak ere ekarri behar direla, ezohikoak. Jende guztiaren gusturako egin behar da, baina jendeari bere ingurutik kanpoko gauza ezberdinak ere erakutsi behar zaizkio.

Artearekin hori askotan gertatzen da: jendeak nahi ditu ikusi betiko gauza gustagarriak, baina artea ez da hori bakarrik. Pentsatzeko, ikasteko eta ezagupena zabaltzeko gauza bat ere bada, eta horrek



proposamen ausartago batzuk eskatzen ditu. Udal aretoa izanik, ez da artera soilik bideratzen den espazioa. Beste ekimen batzuetarako ere tokia izan behar du, beraz.

Nik uste dut bilatu dela oreka gauza horien guztien artean. Programazioan eta jendearen erantzunean ere bai. Eskura daukanean, gainera, jendeak ondo erantzuten du. Arte talde moduan bere garaian lokal hori "okupatu"

genuenean, helburua hori

zen. Jendeak zerbait eskura izatea, artea zabaltzeko. Gero, udal areto bihurtu denetik, ez da artera soilik bideratu; baina horrek horrela izan behar du. ■■■

"Beti ibiltzen gara maleta batekin"

JESSICA GUZMAN ETA SILVIA CARRIZO MALEN ETXEA ELKARTEKO KIDEAK

Malen Etxea emakume etorkinen elkartearen esanetan, harrera etxeak dira bere indarguneetako bat. Badu harrera etxe finko bat Zestoan, eta Zumaian badute behin-behineko leku bat gaur egun: urtebetez izango dira Kofradiako etxebizitzetako batean. Malen Etxeko Jessica Guzmanekin eta Silvia Carrizorekin hitz egin du *BALEIKEk*, eta aztergai izan dute emakume etorkinen egunerokoa, etengabeko trantsizio behartuak markatua.

Testua: **Dorleta Agiriano Lai**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Harrera etxeei lotutakoa izan da Malen Etxearen proiektu nagusietariko bat. Zer dela eta jarri zenituzten martxan harrera etxeak?
Jessica Guzman: Lan bila etortzen diren emakume guztiengan pentsatu genuen; trantsizioan dabilzan emakume etorkinengan. Haietako askok hartu behar izaten dituzte topatzen dituzten lehenengo lanak, eta horrek lan esplotazio eta gehiegikeria egoera askori ematen die bide. Malen Etxearen ideia da emakumeei babes puntuala ematea oinarritzko behar bati erantzunda: etxebizitza. Eta zaurgarrien dauden unean ematen zaie babes hori; sarri, lan bila ari garenean baikaude zaurgarrien.

Hona heldu eta toki bat izateak aukera ematen du erabat desegokiak diren eta eskubideak urratzen dituzten lanei ezetz esan ahal izateko. Askotan hortik baitator edozein lan onartzeko desesperazioa, aterpe baten beharretik. Hori nolabait etetea lortu dugu harrera etxeen bidez, ez daitez behartuta egon edozer onartzera, eta ahaldundu eta haien eskubideak ezagutu ditzaten. Askotan ez baitakite haiek ere badituztela

eskubideak. Aterpe batek, gainera, ahalbidetzen du emakume horiek sendoago egotea, guztiz suntsituta iristen baitira asko, maleta batekin bakarrik. Nik beti esaten dut emakume etorkinak beti ari garela maleta egiten eta beti ibiltzen garela maleta batekin, batetik bestera.

Hasieran asmoa zen emakumeak hiru hilabetez soilik egotea harrera etxeetan, baina konturatu ginen epe hori ez dela ezer, eta nahikoa denbora eman behar diegula emakumeei, haien kabuz hegan egiteko gai izan daitezten. Askok paperik gabe eta sekulako zorrekina etortzen dira, gaixo, adin handiarekin...

Silvia Carrizo: 55-60 urtekoen egoera zaila da, inork ez dituelako adineko pertsonak zaintzeko lanerako hartu nahi eta, gainera, herrialde guztiek ez dituztelako Gizarte Segurantzako hitzarmen bilateralak. Esaterako, Nikaraguako emakumeen kasuan, hemen urte luzez lan egin eta kotizatu arren, baliteke Nikaraguan erretiroa hartzeko aukerarik ez izatea, hango lan biografian ez direlako aintzat hartzen hemen lan egin dituzten urteak, eta alderantziz.

Nolako emakumeak etortzen diren ikusita, azken urteetan ikusi al duzue aldaketarik?



J.G: Nikaraguatik eta Hondurasetik etortzen dira gehienak, baina gaur egun, sobera gazteak izaten dira, baita 18 urtekoak ere. Lehen 30-40 urterekin etortzen ginen. Horrek esan nahi du, askotan, ikasketarik gabe etortzen direla. Eta gazte sektorea are zaurgarriagoa da.

Baina ez da emakumeen profila aldatu den gauza bakarra. Duela hamahiru urte etorri nintzen ni, eta garai hartan 1.000 euro irabazten nituen lanean. Orain baxuagoak dira soldatak. Azkeneko krisiekin, aurrera egin beharrean, atzera egin dugu. Krisi bakoitzean, gu gara atzera gehien egiten dutenak eskubideei eta soldatari dagokienez.

S.C: Pandemia urte honetan denetarik ikusi dugu. Gauzak gaizki zeuden lehen, eta esplotazio eta gehiegikeria egoera errematatu du COVID-19ak. Lehen ere hitz egin genezakeen lan esplotazioaz ordaindutako etxeko lanen

sektorean. Baina, gaur egun, parez pare topatu gara zuzenean lan esplotaziorako gauzatzen den emakumeen salerosketarekin. Sozialki lotsagarriak diren esplotazio mailak aurki ditzakegu.

Zer nolakoa da salerosketa hori?

J.C: Lan trafikoaz ari gara, eta zaintza lanen sektorean emakumeen salerosketaz arduratzen diren lan agentziez ari gara. Duela urte gutxi, pentsatzen jarri ginen: nola iristen ziren hona hain neska gazteak, eta baliabiderik izan gabe? Ez genuen ulertzen, gutxieneko diru kantitate bat behar baita hegazkineko txartela erosteko. Konturatu ginen azken urteetan lan trafikoko kasuak izan direla Nikaraguan, eta hona bideratzen dituztela emakumeak.

Emakumeei diru kantitate bat eskaintzen diete mailegu emaileek, hegazkinerako txartela edota pasaporte ordaintzeko, eta hona heltzean diru



Silvia Carrizo.

kopuru txiki bat eskuragarri izateko. Trukean, baina, sekulako diru kantitateak exijitzen dizkiete gerora, interesekin. Askok senideen etxebizitzak uzten dituzte hipotekatuta haien herrialdeetan. Emakume horiek zorpetuta datoz hona.

Bilbora edota Sevillara heltzen direnean, gela batean sartzen dituzte dozenaka emakume. Lan agentziek lana bilatzen diete, eta miseria baten truke (500-600 euro) lan egitera behartzen dituzte. Askotan, familia enplegatzaileek ez dute hori guztia jakiten, enplegatzaileen eta emakume langileen arteko bitartekaritza lanak egiten baitituzte agentziek. Hortaz, familiei iruzur egiten diete sekulako diru kantitateak eskatzen dizkietelako, baina gero, miseriazko soldatak ordaintzen dizkiete emakumeei.

Jasan behar duten guztia jasaten dute haiek, daukaten zorra kitatu arte. Eta ordaintzen dute, baina sekulako kostuarekin. Kanoi bazka dira edozein gehiegikeriatarako, lana galdu eta zorra handitzeko beldur baitira, zorra handitzen joango delako. Gainera, askok etxeko langile egoiliar modura jarduten dutenez, lana galduz gero, etxea ere galtzen dute. Eta horrekin, erroldatze-agiriak.

S.C: Migratutako emakumeen gorputzak behar ditu sistemak, zaintza lanetan, erreprodukzio zerbitzuetan eta sexu zerbitzuetan esplotatzeko. Gorputz horiek behar ditu, leku horietan kokatu dituelako gizarteak berak. Baina, duela urtebete,

eten egin zen emakumeen trafiko etengabea, hegazkinak gelditu zirelako. Esplotatzeko gorputzak behar dituzte oraindik, ordea; gorputz horiekin elikatzen dira merkatu horiek. Horregatik indartu dira erkidegoen arteko salerosketa sareak.

Hazi egin da zaintza zerbitzuetako lan esplotazioa helburutzat duen emakumeen salerosketa. Zergatik? Gaur egungo egoeran, gurasoak adinekoen egoitzetara eramateko beldur delako gizartea. Orduan, emakumeak kontratatuko dituzte zaintza lanetarako. Baina, noski, ez gara hitz egiten ari erosteko ahalmen handia duen jendeari buruz, mileuristez baizik; askok, izatez, ez daukate gaitasunik langileak kontratatuzko. Malen Etxeak horregatik esaten du badagoela konplizitate esplizitua nahiz implizitua Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien partetik, emakume etorkinen lan esplotazioari dagokionez. **Zer esan nahi duzue instituzio publikoen konplizitatea aipatzen duzueenean?**

S. C: Zaintza arloan ezartzen den politika orok emakume etorkinen esplotazio egoera mantentzea ahalbidetzen du. Erregimen berezitu batean egiten dute lan emakume horiek, eta instituzioek oinarrizko eskubideen urraketa baimentzen eta errazten badute, badakigu zer gertatzen den gizartean: bide ematen zaie gehiegikeriei.

J. G: Enplegatzaileek askotan esaten diete langileei ezin dietela gehiago ordaindu, eta normala izan daiteke hori. Baina, hain zuzen, hor egon behar dira politika publikoak, zaintza nahiz lan duin bat bermatzeko. Ez da posible azken mailan dauden langileek ordaindu behar izatea ezintasun horren ondorioak, eta familiek behartuta ikustea euren burua esplotazio kate bat izatera, haien senide bat zainduta egon dadin. Adineko pertsonak ondo zainduta egon behar dute, ez baitira ez oztopo bat, ez 500 euro. Baina haiek behar bezala zainduta egotea ezin da bermatu langileek baldintza negargarriak izatearen kontura. Ezin da langileek baldintza horiek onartzeko prest egotearen menpe egon.

Horrek esan nahi du antolatu egin behar dela hori guztia, eta estatu politika bat izan behar dela. Egiturazko erantzun bat eskatzen dugu, eta asko dira aukerak.

Etxeko langile egoiliar modura egiten dute lan emakume etorkin askok.

J.G: Asko dira. Paperik ez daukatenez, asko ez daude erroldetan, baina hor daude. Ez dira kalean eskean egoten, edo ez dute herriko plazan lo



Silvia Carrizo eta Jessica Guzman.

S. C.: "HERRIALDE HONEK EMAKUME ETORKINEN BIZITZETZ ABUSATZEN DU; GIZARTEAK BIZITZA KENTZEN DIE"

J. G.: "ADINEKO PERTSONEK ONDO ZAINDUTA EGON BEHAR DUTE; EZ DIRA OZTOPO BAT, EZ 500 EURO"

egiten, beti egongo delako lagundu eta muturreko egoera hori ekidingo duen beste emakume etorkin kide bat; baina hor daude. Atari bakoitzean dago etxeko langile egoiliar bat. Eta ikusarazi egin behar ditugu.

Langile horiek ere haien eskubide guztiak errespetatuak izatea eskatzen dugu, oinarriko gauzak ere ez baitira errespetatzen: lanaldi bat, atsedeen orduak, gutxieneko soldata...

Bestalde, jendeak badauki etxeko langile egoiliarrak badaudela, baina inor gutxik barneratu du lan erregimen horrek ez lukeela existitu behar. Ez da posible 24 orduz etxean sartuta lanean ari diren emakumeak egotea, garatua dela dioen gizarte batean. Uste dut, berez, gizarte honetan inork ez lukeela lan egin nahi etxeko langile egoiliar gisa; 24 orduko lana da.

S.C: Emakume etorkinak pobretuta etortzen dira hona, eta haien urterik onenak eta, azken batean, haien bizitzak ematen dituzte lan horietan. Eta herrialde honek emakume etorkinen bizitzetaz abusatzen du, esklabotza erregimen bat inposatzen baitie. Gizarteak bizia kentzen die.

Zerk bultzatzen ditu migratzeraz?

J. G: Egoera ekonomikoak. Seme-alabak edo guraso zaharkituak mantendu nahi baditugu, mugitu egin behar dugu lan egin ahal izateko. Behartutako migrazioa da, egoera ekonomikoagatik kanporatzen baikaituzte gure herrialdeetatik. Eta egoera horrek behartzen gaitu, lehen pentsaezina zirudien arren, mugitzera eta miseriazko lanak onartzera. Baina egiten dugu. Eta hemen harrapatuta geratzen gara askotan, itzuli ezinik. Eta azkenean ez gara ez hemengoak, ez hangoak.


Beti egon da eta egongo da immigrazioa, eta egoera ekonomikoek eragingo dute horretan. Uste dut pandemiaren ostean immigrazio handia egongo dela; jendea edozein baldintzatan etorriko da, batez ere emakumeak. Hemen biztanleria zahartzen ari da, gainera. ■■■

arnasa gara

Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

EGUNEROKOAN ZER?

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.



www.arnasagara.eus
martxoaren 22tik maiatzaren 14ra

Astero bideo bat eta elkarrizketa bat.

Txirrina behin baino gehiagotan jo behar ez duen karteroa

Jose Manuel Castillo, postaria

Karroa gutunez eta paketez goraino bete, eta eguneroko ibilbidea hasiko du Jose Manuel Castillok, 'Pepe karteroa' bezala askok, gehienek, ezagutzen duten bezala. Eguraldi onarekin ala txarrarekin, eguzkia edo euria izan, gustura, hitz txarrak esan gabe, beteko du bere ibilbidea, egunero egin ohi duen bezala.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Batzuk bere ogibidea halabeharrez betetzen dute, beste erremediorik ez dutelako. Castillok, aldiz, maite du bere ofizioa. “Nire lana gustatzen zait, eta iruditzen zait gizarteari zerbitzu bat ematen ari naizela. Fabrika batean egin nuen lan, eta han lanorduak luzeagoak egiten zitzaizkidan. Lan honetan, aldiz, orduak hegan joaten zaizkit”. Urteak, hamarkadak, daramatza gutunak eta paketeak banatzen. Baina, esan daiteke ofizio honetan kasualitatez hasi zela.

Jose Manuel Castillo Bastias Esparragosa de la Serena herrian jaio zen, Badajozen (Extremadura, Espainia), 1959. urtean. 7 urte zituela etorri zen Euskal Herrira, bere familiarekin; Zestoara, hain zuzen ere. Han izan zuen bere lehen kontaktua postari ofizioarekin. “Nik, berez, mekanikari ikasketak egin nituen Azkoitiko Lanbide Heziketa eskolan. Baina, ikasketak amaitu nituenean, 1970eko hamarkadan, ez nuen ikasitakoarekin loturarik zuen lanik aurkitu. Norbaitek esan zidan karteroak behar zituztela Zestoan; 19 urte nituen, eta animatu egin nintzen”, dio. Soldaduskatik bueltan, Azpeitiko enpresa batean hasi zen

lanean, baina postariaren harrak barrenean jarraituko zuen, sei urteren ondoren lanbide horretara itzuli zelako. “Hasieran Zestoan egon nintzen lanean, baina Azkoitian, Azpeitian eta Zarautzen ere egin izan dut lan. Zarautzen nengoela egin ninduten finko, eta azken hemeretzi urte hauetan egon naiz Zumaiari lanean”. 27 urte dira Zumaiara bizitzera etorri zela.

Ofizio gehienek bezala, postariaren lanbideak ere aldaketa handiak bizi izan ditu hamarkada hauetan. Garai hartan, kartero lanetan hasi zenean, posta Urolako trenean ekartzen zutela du gogoan. “Karro batekin joaten ginen, eta han jasotzen genuen eguneko posta. Hasi nintzenean oraindik ere larruzko poltsatan eramaten genituen gutunak-eta; poltsa berak asko pisatzen zuen. Orain erosketa karroak eramaten ditugu, eta eskerrak, egun normal batean eramaten dugunaren zati txiki bat ere ez zitzaigun eta sartuko orduko poltsa haietan”.

“Gutunak, telegramak, edota Gabonetako edo oporretako postalak bidaltzea ohikoa zen lehen”, gogoratu du Castillok. “Gogoan dut nola ibiltzen ginen gu ere Extremadurako osaba-izebei gutunak



irrimarra



bidaltzen”. Komunikazioak asko aldatu dira ordutik. Orain, iraultza digitalarekin, telefono mugikorrekin, Internetekin, gutunak idazteko ohitura galdu dela dio penaz. “Lehen bidaltzen ziren gutun polit haiek, maiteminduek batak besteari bidaltzen zizkieten gutunak, hori guztia asko jaitsi da; erromantizismo hori galdu da, eta pena ematen dit, ni neu zentzu horretan erromantiko hutsa naizelako”. Eskuz idatzitako gutunak iraganean galdutako oroitzapenak besterik ez diren garai honetan, postariek, gehienbat, notifikaziok eta fakturak banatzen dituztela dio. “Udaletxeokak, epaitegietakoak, gestoretakoak, gremioetakoak... Etxe batzuetan isunik-eta ez eramateko esaten didate, txantxetan”, dio. Orain pakete gehiago ere banatzen dituzte postariek. “Correosek horretan jakin du eraldatzen”.

Behin edo beste helbiderik ez duten gutunak ere jaso dituzte bulegoan. “Izen-abizenak bai, baina helbiderik ez. Halakoetan, itzuli aurretik, galdetu egiten dugu ea inork badakien pertsona hori non bizi den. Behin emakume bati zuzendutako gutun bat heldu zitzaigun; helbiderik ez zuen, baina han eta hemen begiratuta jakin nuen non bizi zen. Harremana galduta zuen anaia batek bidalitako gutuna zen, Galiziatik bidalitakoa. Hori da poza hartu zuena! Nola eskertu zuen!”. Kartazal baten barruan denetik aurki daitekeela dio Castillok. “Harritzen zaituen mezu bat, elkar ikusi ez duten anaia-arreba batzuen arteko gutuna, Osakidetza bidalitako abisua, beka baten zain dagoen ikasle bati igorritako oharra... Gutun guztiek dute garrantzia, eta gu ere horren kontziente gara”.

Bost dira Zumaian lan egiten duten postariak; batek auzoak egiten ditu, eta beste lauek herrigunea. Bulegoan giro oso ona dutela azpimarratu du. Alde zaharreko eta Ardantzabideko postaria da Castillo. “Esaten

didate santuen karteroa naizela, San Jose, San Pedro eta San Telmo kaleetako posta nik banatzen dudalako”, dio irribarre batekin. Alde zaharreko merkataritzak bizi izan duen beherakadaren lekukoa ere izan da Castillo. “Merkatari txikiekin lan egiten dut, eta pena handia eman dit merkataritza txikia nola joan den itzaltzen ikusteak; denda txikiak nola joan diren ixten. Alde zaharrean ia ez da dendarik geratzen, eta horrek pena handia eman dit. Herri txikien esentzia dira merkataria hauek; bizitza ematen dute, konfiantza. Oso ondo hartu naute denda hauetan, eta ez nuke hori guztia galtzerik nahi”.

“Mundu guztiak ezagutzen du Pepe”, zioen bere lankide batek elkarrizketaren aurretik. Eta ia denek estimatzen dute, gehitu du kazetari honek. “Egia da harreman oso ona dudala jendearekin. Faboreren bat egin behar badut, egingo dut. Gehiago esango dut: gustatu egiten zait fabore horiek egitea. Arritokieta edo San Telmo kaleetan atea jo eta behin baino gehiagotan sukaldera eramán eta jateko zerbait atera didate. Urte asko

Jose Manuel Castillo


- **Adina:** 62 urte.
- **Ikasketak:** Lanbide Heziketa, mekaniko doltzaile alorrean.
- **Lanbidea:** Postaria.
- **Postaria ez banintz...** Maisua eskola txiki batean, Gaztelan edo Espainiako landa eremuko herri txiki batean.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Irakurtzea. Denetik irakurtzen dut. Historia, nobela, entsegua... denetik. Azkenaldian Zumaia historiako liburuak irakurtzen nabil.



noa lanean, pertsona noble bezala ikusten naute, eta bihotza ere zabaldu didate”. San Telmo kalean bizitako pasadizo bat kontatu du barre artean. “Aiton-amonekin egoten zen lau bat urteko ume bat zegoen. Txirrina jotzen nuenean esaten zioten Pepe izango zela, Pepe karteroa, eta ireki egiten zuten. Horrela egunero. Ama haurdun zegoen, alaba izan behar zuen, eta mutil koskorrari esan ziotenean arrebari zer izen jarriko zioten, haserretu egin zen: arrebari Pepe izena jarri behar omen zitzaion!”.

Erretiroa hurbil ikusten du Castillok. Hasiera batean, erreleboko kontratuarekin hasi behar zuen beste postari batek, baina pandemiak prozesua geratu duela dio. Bizi dugun garai hiperteknologikoan, postarien ofizioa bera arriskuan egon daitekeela uste du. “Gizarte globalizatu honetan, dena presazkoa den une honetan, horren arriskua ere badago. Gure gizarte honetan norberak bere postontzia izatea, eta egunero posta jasotzea luxua da. Pena litzateke hori galtzea”.

NON DAGO BALEIKE?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali maiatzaren 19a baino lehen. **Saria:** Maiaur kafetegiak emandako bi lagunen-tzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.




Jose Antonio Manzisidor Baleikeko bazkidea da Baleike pertsonaia aurkitu duena.

MAIAUR
ZUMAIA

ZUMAIAR

bat gehiago



**BATU BALEIKEREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Noiz kendu fardela?



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

Uda gerturatzen ari da, eta guraso asko galdera hau egiten edo entzuten hasi dira: “Noiz kendu behar diozu fardela?”.

Eta horrela al da? Uda al da pixoihala kentzeko garairik egokiena?

Esfinterren kontrola haurraren garapenean prozesu natural bat da. Ez da ikasten, ezin da irakatsi, modu autonomoan lortzen da. Ez dago momentu zehatz bat. Uda momentu erosoan izan daiteke gurasoentzat, eguraldiagatik, arropa gutxiago eramatean dugulako soinean..., baina ez haurarentzat. Ez, behintzat, prest ez dagoenean.

Esfinterren kontrola ez da egun batean lortzen den zerbait, prozesu bat da. 2 urterekin has daiteke eta 5-6 urte bitartean bukatu (2-4 urte bitartean eguneko kontrola eta 3-6 urte bitartean, gaueko kontrola; batzuetan gauekoa ere gehiago luzatu daiteke, eta hori ez litzateke arazoa izango.) Eta oso garrantzitsua: ez da lineala, hau da, atzerapausoak eta aurrerapausoak ohikoak dira.

Fardela (pixkanaka) kentzeko momenturik egokiena haurra prest dagoenean izango da. Eta noiz dago prest? Seinale batzuk badaude:

- Fardela denbora luzeago batez lehor mantentzea.

- Hizkuntza maila: hitz batekin behar duena espresatzeko gaitasuna izatea.
- Motrizitatea: eskailerak igo, korrika, salto... egiteko gaitasuna izatea.
- Bere gorputz estrukturaren kontzientzia izatea.
- Komunaren inguruko interesa azaltzea.
- Haur helduagoak imitatzea.
- Agindu sinpleak jarraitzeko gaitasuna.
- Gauzak bere kabuz egiteko interesa.
- Txiza edo kaka egin nahi duenean esatea.
- Berak eskatzea fardela kentzeko.
- Berak ere komuna erabili nahi duela adieraztea.

Zer ez egin?

- Pixa edo kaka gainean egiten badu oso garrantzitsua da ez zigortzea, ez aurpegiratzea, zikina dela ez esatea, aurpegi txarra ez jartzea...
- Komunean eserita egotera behartu kaka edo txiza egin arte.
- Etengabe komunera joatera behartu edo galdetu.
- Oheratu aurretik likidorik ez ematea pixak ez ihes egiteko.

HAURRA PREST DAGOENEAN IZANGO DA. ETA NOIZ DAGO PREST? SEINALE BATZUK BADAUDE

Zer egin pixoihala kendu badiogu eta txizak edo kakak irteten badio?

- Garrantzia kenduko diogu.
- Animatu egingo dugu.
- Lagundu egingo diogu. aldatzen eta garbitzen.
- Behar badu, berriro fardela eskaini.

Prozesu guztietan aldaketak egon daitezke. Fardela kendu eta konturatzen garela oraindik ez dagoela prest? Bada. berriro jarri. Arazorik gabe. Etxean ondo kontrolatzen duela baina eskolan ez dela seguru sentitzen? Ba, etxean fardelik gabe eta eskolan fardelarekin. Haurraren beharretara egokitu.


Zer gerta daiteke ez badugu erritmoa errespetatzen?

- Frustrazioa azalduko da gurasoengan eta haurraren gan.
- Autoestimazio arazoak sor ditzake, espero duguna haurrak ezin duela lortu ikusten duenean.
- Segurtasun falta norberak kontrola ez izateagatik.
- Enkopresi erretentiboa. Haurrak kontrola galtzearen beldurrez, kakari eusten dio eta horrek arazo larriak ekar ditzake. Goizegi hasteagatik edo gehiegi presionatzeagatik gerta daiteke hori.

Beraz, fardela kentzeko: presarik gabe, haurraren erritmoa errespetatu, haurraren beharretara egokituz. ■■■

Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua

B	T	S	D
S	D	A	T
S			T
D	E	B	A
D	T	E	
B		T	D

Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokua lau zuriak BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonon aitona-amonen beren haurtzaroon landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatetxea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
L I B R U R U
D E N D A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa


- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika



Ardantzabide, 3 behea • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56


Ardantzabide
ALTZARIAK-ARROZTEGIA

www.ardantzabide.com 

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel.: 943-86 25 32
Aroztegia: Santiago, 40 Tel.: 943-86 16 31

ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



OLAN DEGIA
Arkupel
Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA
OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea
Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

f t i



finés
francés
alemany
inglés
español
catalán
suomi
basco
castellano
francés
inglés
castellano
finés
inglés
suomi
catalán

BAKUN
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza
Albaitaria
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadicriivet.com
www.basadicriivet.com

Goloz: 11-13 / Armatzak: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia
Larrikidietarako: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua

COVID-19aren txertoa (I)



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Txertoa COVIDen aurkako tresnarik onena da, baina ez bakarra. **Ez ahaztu neurriak hartzen jarraitzea:** pertsonen arteko distantzia, eskuen higieena, aireztapena eta burbuila soziala.

Txertoaren ezaugarriak

Garatzen ari diren SARS-CoV-2aren aurkako txerto guztiak helburu dute erantzun immune indartsuak sortzea SARS-CoV-2 birusaren S proteinarekiko.

Pfizer/BioNTech-en txertoa eta Moderna/Lonzarena oso antzekoak dira. Izan ere, RNA mezularia baliatzen dute, COVID-19aren genom oinarrituta, S proteina kodetzen duen genearena, hain zuzen.

Kasu bietan, bi dosi behar dira immunitatea

bermatzeko. Pfizer/BioNTech-en txertoaren lehen eta bigarren dosiaren artean 21 egun igaro behar dira. Moderna/Lonzaren txertoaren kasuan, berriz, 28 eguneko tartea.

Bi txerto horien arteko alde nabarmenetako bat da kontserbazioari dagokiona: Pfizer/BioNTech-enak -70 °C-tan egon behar du izoztuta; Moderna/Lonzarena, aldiz, -25 °C eta -15 °C arteko tenperaturan.

COVID-19aren aurkako txertaketaren inguruko galderak eta erantzunak:

Zalantza orokorrak PCRa edo serologia egin behar da txertoa jarri aurretik?

Ez da gomendatzen.

Txertoa doakoa da?

Bai, txertoak doakoak dira herritar guzientzat.

Aukeratu dezaket zer txerto hartu?

Ez. COVID-19aren aurkako txertaketa kanpaina bizi dugun egoera epidemiologiko larriak baldintzatzen du. Hori dela eta, kalteberenen babesa ahalik eta lasterren sendotzeko, aplikatuko den txertoa ezin du bakoitzak hautatu; hautaketa hori biztanle-taldeetan txertoek duten eraginkortasunean eta indikazioan oinarritu behar da.

Ziurtagiririk edo dokumentaziorik emango didate txertoa jarrita didatela egiaztatzeko?

Osakidetzak txertaketa agiria ematen die txertaketa puntuetan txertoa jartzea eskatzen dutenei. Halaber, Osasun Karpeta bertan dago eskuragarri.

Ba al dago Europa mailan txertaketa kartillarik?

Europa mailan txertaketa kartilla ateratzeko ari dira lanean, nazioarteko joan-etorri bide emateko. ■■■

Orain arte, hauek dira European erabiltzeko onartutako txertoak eta garapen fase aurreratuenean daudenak:

Laborategia	Txerto mota	Biltegitratzea	Arautze egoera	Bigarren dosia
Pfizer/BioNTech	ARNm	Izoztu -80°C-tan	EMAK onartua	21 egun
Moderna/Lonza	ARNm	Izoztu -25°C-tan	EMAK onartua	28 egun
AstraZeneca/Oxford	Adenobirusa	Hotzean 2-8°C-tan	EMAK onartua	10-12 aste
Johnson & Johnson/Janssen	Adenobirusa	Hotzean 2-8°C-tan		
Novavax	Nanopartikulak	Hotzean 2-8°C-tan		
Curevac	ARNm	Hotzean 2-8°C-tan		
Sanofi Pasteur eta GSK	Bakulobirus errekonbinatea	Hotzean 2-8°C-tan		

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 98
asadarbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com



RPS 18/16



EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Ekin
ELECTRIFICADOS, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA


V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garaa



Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxes 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Ireland optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak



San Telmo12 943-86 07 60



Biharamuna hari batean

Mundu mailan ingurumenaren eta biodibertsitatearen egoera ebaluatzeko ardurua Natura eta baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna izeneko erakundearen lana da, eta urtero mehatxatutako bizidunen zerrenda eguneratu eta argitara eman ohi du. Azken txostenetako bat abiapuntutzat hartuta, artikulu honetan, gure ingurune hurbilean desagertzeko arriskuan dauden espezieetan jarriko dugu arreta. Izan ere, nork ez du Zumaiako kaleetan ezustean agertu zen igarabaren berri izan? Gertakari berezi horrek egoera gorrian dauden espezieen auzia lehen lerrora ekarri du.

Testua: **Gonzalo Torre.**

Europako bisonte talde bat Ukrainan.

STARGAZER00 CC BY-SA 4.0

Natura eta baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna (NKNB), 1948. urtean, Nazio Batuen Erakundeak sortutako instituzio bat da. Ingeleseko siglengatik ezagunagoa -IUCN-, guztira, 1.400 gobernu erakunde eta gizarte zibileko eragile baino gehiagok osatzen dute. Hori dela eta, ingurumen egoerari eta hura babesteko beharrezko neurriei dagokienez, NKNB munduko autoritaterik handiena da.



Itsasoko igitai-belarra. Zumaiaiko dunetan bizi den landare kaltebera.

Aldizka egiten duen moduan, 2020an NKNBk argitaratutako landare, animalia eta onddoen biziraupena aztertzeke zerrendaren azken eguneraketan albiste onak eta txarrak zeuden. Berri onen artean, esaterako, aipatu behar da bisonte europarra berreskuratu egin dela. Ehiza eta habitataren galera medio, Europako bobidorik handiena XX. mendearen hasieran desagertzeko zorian egon zen. Egun, berriz, talde basatietan bildurik, kontinente osoan 6.000 ale baino gehiago dago.

Hala ere, azken zenbaketatik hona 31 animalia eta landare espezie desagertu dira munduan; besteak beste, igelak, arrainak, zenbait landare eta saguzar bat. Guztira, 35.500 espezie baino gehiago daude galzorian; bestela esanda, orain arte ikertutako espezieen % 28 mehatxupean dago.

Hori horrela, anfibioen % 40, arrain kartilaginosoen (marrazoak eta arraiak) % 33, ugaztunen % 26 eta hegaztien % 14 *Espezie Mehatxatuen Zerrenda Gorrian* daude.

Mehatxatuta dauden EAEko espezieen zerrenda

Autonomia eremu hurbilenean, arriskuan dauden espezieak Natura Babesteko Legeak (16/94 Legeak) araututako *Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan* biltzen dira. Katalogo horretan jasotzen dira babes neurri bereziak behar dituzten espezie, azpiespezie edo populazioak, eta zerrendatutako bizidunak 4 kategoriatan sailkatzen dira:


- **Galtzeko arriskuan daudenak**, hau da, baldintzak aldatu ezean bizirauteko aukera txikia dutenak.
- **Kalteberak**, aurka dituen faktoreak zuzentzen ez badira, aurreko kategorian sartzeko arriskuan daudenak.
- **Bakanak**. Kategoria honetan tamaina txikiko populazioa duten espezie edo azpiespezieak sailkatzen dira, betiere galtzeko arriskuan ez badaude, edo kalteberak ez badira.

• **Interes berezikoak**. Aurreko kategorietan egon gabe, balio zientifiko, ekologiko edo kulturalagatik, edota bere apartekotasunagatik, arreta berezia merezi duten bizidunak dira.

Gaur egun 375 espeziek osatzen dute Euskadiko katalogoa: horietatik, 88 galtzeko arriskuan daude, 113 kalteberak dira, 83 bakanak izeneko kategorian sailkatu dituzte eta 91 interes berezikotzat jotzen dira. Zerrendatutakoaren tipologiari dagokionez (erreferatu 01 grafikoari), ia espezieen erdiak

lore-dun landareak dira, eta beste laurdenak hegaztiak. Aldiz, gutxien ordezkatutako taldeak krustazeoak, moluskuak, intsektuak eta gimnospermak (koniferoak eta antzekoak) dira.

EAEko arriskuan dauden espezieen zerrenda



Arriskuan dauden espezieen zerrendako taldeen ba naketa. GEOPARKEAREN ZERBITZU TEKNIKOEN EGINA

Betiko galtzeko zorian

Aurrez aipatu bezala, EAEn, 88 dira desagertzeko arrisku larrian dauden espezieak, eta kategoriotan ere erdiak landareak dira. Adibidez, azken horien artean daude nahiko ezezagunak diren olibondo basatia, nenufar zuria, eguzki ihintza landare haragijaleak edo otsagereziondoa.

Animalien artean, zoritxarra erdibana banandurik dago ornogabeen eta ornodunen artean, eta horietatik 44 zaugarritasun handiko egoeran daude. Hegoaldeko zuhaitz igela, itsas lanproia, ugatza, muturluze piriniotarra, igaraba edo ibai karramarro arrunta, beste askorekin batera, kategoria horretan egoteko zalantzaoko ohorea dute.

Eta gure inguru hurbilean? Bada, zerrendako beste animalia batzuk hedapenerako toki egokia izanik ere, 5 dira Geoparkean egiaztatuta bizi eta galtzeko arriskuan diren espezieak: ibai karramarro arrunta, miru gorria, bisoi europarra, ferra saguzar mediterranea eta igaraba, hain zuzen. Ondorengo lerroetan animalia horiek zertxobait hobeto ezagutuko ditugu.

- **Ibai karramarro arrunta** krustazeo txikia da, eta mendebaldeko, erdialdeko eta hegoaldeko Europako eremu karetsuetako sakonera txikiko ibai eta errekatxoak ditu gustuko. Gizakiak sartutako beste karramarro batzuei lotutako onddo baten erasoaren ondorioz, XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera karramarro horren populazioak nabarmen murriztu dira. Dena den, Geoparkeko hainbat errekastotan mantendu da eta birpopulatzeko lanak egiten ari dira.

- **Miru gorria** tamaina ertaineko harraparia da, identifikatzeko erraza: hegan oso trebea da, urkila itxurako buztana du eta kolore gorrixka nabaria da. Pestiziden bidez pozoitu zirelako, jazarpena pairatu duelako eta naturaguneak galdu direlako, miru gorrien populazioa gutxitu egin zen Europa osoan. Hala ere, lege babesak eta espeziea berriz sartzeko proiektuak abian jartzeak haren suspertzea ekarri du, eta 2020an NKNBko zerrendarik beltzena atzean utzi du.

- **Bisoi europarra** neurri txikiko mustelidoa da eta landare marduleko ibaiertzetan, lakuetan, paduretan edo zingiretan bizi da. Ibaietan naturalizatutako bisoi

amerikarraren habitat berbera partekatzen du, eta horrek eragin dio gainbehera; izan ere, Ipar Amerikatik larrua ekoizteko ekarritako hurbileko senidea bera baino askoz oldarkorragoa da eta baliabide berberak lortzeko lehiakidea du. Europako ugaztun mehatxatuena da, eta ez dugu ezagutzen zer egoeratan dagoen Geoparkean.

- **Ferra saguzar mediterranea.** Saguzar honen populazioa oso txikia da eta Geoparkeko kobazulo batzuetan egotea posiblea da. Taldeetan bizi ohi da eta udan gizakiari lotuago dauden babeslekuak ere erabiltzen ditu (bordak, utzitako eraikinak, etab.).



Miru gorria hegan. HANSUELI KRAPF CC BY-SA
3.0



Haren populazioak erregresioan jarraitzen du.

• **Igaraba.** Artikulu hau labean zegoenean Zumaia kaleetan azaldu zen, ezustean, eta, hala, ezin da aipatu gabe utzi.

1950etik aurrera erregresio-prozesu handia jasan zuen, EAEko isurialde atlantikotik erabat desagertu arte. Hala ere, haragijale honen populazioak aurrera doala dirudi eta gero eta sarriago ikusten da Gipuzkoa eta Bizkaiko ibaietan. Dozenaka kilometroko lurraldeetan ibiltzen den espezie bakartia da.

Igaraba Zumaia kaleetan. IÑIGO ODRIÓZOLA

Kudeaketa planak

Natura Babesteko Legearen arabera “espeziea behin zerrendatuta, kudeaketa plana idatzi eta onartuko da”. Kudeaketa plan horiek espezieen gaineko mehatxuak ezabatzeko behar diren jarraibide eta neurriak bilduko dituzte, eta, era berean, bertako populazioen berreskuratze, kontserbazio eta erabilera egokia sustatuko dute. Horretarako beharrezkoa da, baita ere, haien habitaten babesa eta mantentzea.

Aurreko guztiaren arabera, arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrendan sartutako espezie guzti-guztiek berezko kudeaketa-plana izan beharko lukete. Alabaina, errealitatea oso bestelakoa da eta haietako 16k baino ez dute beren biziraupenaren alde egingo duen kontserbazio tresnaren bat.

Lurralde historiko bakoitzean espezie batek plan bana duela kontuan hartuta, Bizkaiak zortzi plan onartu ditu, Arabak zazpi eta Gipuzkoak, berriz, hiru. Hiru lurraldeetan kudeatzeko plan bat daukan espezie bakarra bisoi europarra da eta hegazti nekrofagoena hirurek adostu dute, baina inork ez du oraingoz dagokion foru araua onartu.

Hortaz, mapa juridiko horrekin, bisoi europarra da Geoparkeko hiru herrietan kudeatutako espezie mehatxatu bakarra, eta bi dira animalia horrentzat interes bereziko izendatutako gunek: Mijoa eta Artzain erreka, Mutrikun, eta Arroaerreka, Zumaian. Gune horietan, espezie kontserbatzeko neurri bereziak hartu beharko dira eta zenbait jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena edo aldeko txostena beharko dute.

Azken ohar gisa, legea indarrean egon den 26 urteetan, zaintza intentsiboa behar duten espezieen


% 4k baino ez du kudeaketa plan egoki bat lortu. Gutxitxo, ezta? Gauzak asko aldatu behar dira gure inguruan espezie hauen pelgrinajeak amildegian buka ez dezan. ■■■




Arroaerrekako erreka-eremuaren bailara (Zestoa). Zumaian Narrondo ibaia izenez ezagunagoa da.

Lehenengo konexioak egiteko prest dago ZOZ sarea

Parolaldeko, Larretxoko eta
Ardantzabideko etxebizitza eta
lokaletan martxotik aurrera
erabilgarri

 labur.eus/ZOZ

 zoz@guifi.net

 656 511 916



Zumaia
Udala



ZUMAIA TXARTELA

250
kantinplora

ERABILI ZURE TXARTELA
ETA IRABAZI KANTINPLORA BAT

Maiatzaren 10etik 30era edo agortu arte.



Zumaia
Udala



PUBLIZITATEA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

KALARI

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAI A

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL

estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAI A
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAI A, S.L.

Joxe Mari Kortza Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi

Garbiketak

**Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Urpetik azalera



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA


@ImanolAzkue

Martxoan eta apirilean erakusketa berezia izan dugu ikusgai Alondegian, "Etendako itsas bidaiak", 1900etik hona Bizkaiko Golkoan hondoratu diren itsasontzi batzuen historiarekin. Hondoratzeko horetako batzuk Zumaia inguruan izan ziren, eta tarte bat zegoen eskainita Lyndiane, Osthav, Velazquez eta Denebole itsasontziei. Gainera, hondoratzeko eta istripu kontu gehiago dauzka jasota Javier Carballo Zumaia eta olagarroa liburuan. Horien guztien osagarri, beste gertakari batzuk ekarriko ditugu hona, gertaera haiek ahanzturaren urpetik argitara ateratzen nahian.

Zumaiaiko barra beti-betitik txarra izan da portura sartzeko eta portutik irteko itsasoa zakar dagoenean, eta hobetzeko lan ugari eginagatik, txarra izaten jarraitzen du gaur egun ere. Lehen, ordea, itsasora ia nahitaez irten behar izaten zuten, gaur egun baino baliabide eta laguntza gutxiagorekin, eta erreztatu egiten zuten laguntza eske; 1787an San Telmo Kofradiako buruak gutuna idatzi zion Udalarari babes eskean, goizeko bostetako hirugarren meza

errekamatzeko marinelentzat: "(...) los marineros de dicha cofradía, en los tres meses de Diciembre, Enero y Febrero todos los años acostumbran así a la altura de la Pesca del Vesugo, aun en todos los días festivos que la mar esta buena para poder pasar la Barra de esta villa: que de no observarse esta costumbre inmemorial resultarían considerables daños y perjuicios a dichos marineros, sus familias y al público de no Pescar siempre y cuando se pueda, respecto a que en muchos días de lavor no pueden salir al mar a causa de estar intransitable dicha Barra;

y de exponerse demasiado en ella, han resultados los lastimosos y estragos que son demasiado notorios de anegarse las lanchas y ahogarse los hombres"¹. Beraz, eguraldiaren aurreikuspen fidagarrikerik ezean, mezetara joan eta erreztatu egiten zuten, baina batzuetan alferrik. Izan ere, itsasontzi ugari (merkataritzakoak eta arrantzakoak) ibiltzen ziren atzera-aurrera gurean eta nahikoa ohikoak ziren istripuak eta hondoratzeak. Istripu lazgarrienetako bat 1852an gertatu zen, eta hamahiru lagun ito ziren; garai hartan ez zegoen



Denboralea txalupak hondatzen. WIKIPEDIATIK HARTUA

prentsarik albistea jasotzeko, gure iturri bakarra udal aktak dira, eta egun hartan propio elkartu zen udalbatza: “Se trató de tomar alguna disposición a consecuencia de la horrorosa desgracia ocurrida en el naufragio de trece personas a las nueve horas de esta misma mañana, a la distancia de un cuarto de legua de la barra de este puerto”²; Barraren ingurua ezin dugu imajinatu gaur egungoa bezalakoa, orduan ez baitzegoen ez paolik, ezta babesteko kai muturrik ere, eta Aitzabaleko haitzak eta Puntakohaitza ziren babesgune bakarrak (eta batzuetan arrisku ere bihurtzen ziren); paperotan, 13 lagun horien izen-abizenak eta utzi zuten familia azaltzen da; Lino Uriarte zinegotzia izendatu zuten laguntza eskean gobernadorearengana joateko, eta egoera honela dago deskribatuta eskaeran: “la desgracia era inmensa, que no tenía comparación con ninguna otra ocurrida en una sola lancha, que en trece hombres ahogados era imposible fuese mayor la pérdida de tantas familias, que ocho viudas, veinte y dos niños y tantos padres ancianos demandaban un sacrificio grande a su madre la Provincia”³. Probintziak 10.000


erreal eman zituen eta Iruñeko obispoak 1.000, besteak beste.

Handik zazpi urtera, 1859an, beste hondoratze izugarri bat izan zen. Orduan ere udaletxean elkartu ziren zinegotziak eta Kofradiako maiordomoa, eta hauxe idatzia: “Reunidos los señores precedentemente citados con la más viva emoción e impresión como todos los circunstancias con el lamentable suceso que motiva esta reunión, hizo presente el Señor Alcalde Presidente que a las nueve y media a diez de esta mañana saliendo a pesca la lancha trañera⁴ Bella María de este puerto, al querer atravesar la barra se anegó y han perecido ocho de los quince marinos que la tripulaban”⁵; zortzi gizon horiek 18-22 urte artekoak ziren, eta Udalak zenbait neurri hartzea proposatu zuen: laguntzeko deialdia egitea,

1884AN EZ ZEN HONDORATU TRAINERUA EDO ARRANTZA-ONTZIA, BAIZIK ETA ATOIONTZIA

suskripzio bat zabaltzea, Donostiara eta Tolosara joatea Probintziari laguntza eskean... Begira zenbateko nahigabea zegoen gure herrian: “[neurriak] las aprovo en todas sus partes en medio del cuadro desgarrador que presenta en la actualidad esta villa, y los tristes ayes que se oyen dó quiera que se fije la vista”⁶.

Beste hondoratze baten berri bertso batzuen bidez jakin genuen, Antonio Zabalarri esker⁷. Manterola izeneko batek sinatuak dira, eta 1878ko denborale batera garamatzate. Txalupa bat (seguru asko Mutrikukoa) urtarrilaren 8an bisigutara irten zen, eta hartan ari zirenean, mendebaldetik ekaitza sartu zen; dena utzita, portu aldera hartu zuten, babes bila; bidean, denboralearen erdian, hondoratzen ari zen Zumaiaiko txalupa bat topatu zuten, hogeitarrantzalerekin, eta haiei laguntzen ahalegindu ziren; zazpi lagun salbatu zituzten, baina orduan ere hamahiru lagun ito egin ziren. Bertsoetan ez da aitatzen urterik, baina Zabala Zumaiara etorri eta elizako heriotza liburuan begiratuta, jakin zuen 1878an gertatu zela eta arrastoa atera zuen zein ziren hamahiru hildakoak, izen-abizenekin. Ehun urte geroago, 1979an,



Atoiontzia belaontziari porturatzen laguntzen. ALADRÉN FAMILIA, JAVIER CARBALLOK UTZIA

urtarrilaren 8an, meza berezia egin zuten Zumaiako parrokian eta elizkizunean bertso haiek abestu zituzten.

Hondoratzeko eta itotako gehiago ere izan ziren, baina oraingoan 1884ra joango gara, berezia izan zelako. Izan ere, ez zen hondoratu trainerua edo arrantzarako ontzia, baizik eta atoiontzia, hau da, itsasontzi handiagoei portura sartzen edo portutik irteten laguntzen ziena: "(...) a la una de la tarde del día de ayer acontecidas a causa del naufragio de la lancha de ataje y haber perecido de los once hombres tres de ellos: Jacinto Chapartegui, su hijo Juan José y Fermín Aizpúrua todos ellos de esta vecindad"⁸. Handik hilabete batzuetara, ezbehar haren ondoriozko

lanak zirela eta, hilerriaren arduradunak lan "estragatik" zerbait ordaintzeko eskatu zuen, eta Udalak zioen "se acordó gratificarle con setenta reales a razón de diez reales por los siete últimos desgraciados marineros que sucumbieron en 9 de Marzo último y los cuatro tripulantes que fueron víctimas por la explosión del vapor

PRAKTIKOAREN ONTZIAN ZEUDEN LAU LAGUN ITSASORA BOTA ZITUEN OLATU BATEK 1956. URTEAN

'Guriezo' el 18 del mes último [uztailean]⁹. Atoiontzikoak ez ziren izan, ordea, ezbeharra izan zuten portuko langile bakarrak, eta beste bi jasotzen ditu Carmelo Urdangarinek *Oficios tradicionales* liburuan¹⁰, Javier Carballoren lanean oinarrituta, praktikoei dagokien atalean: 1931n, itsaso zakarreko egun batean, itsasontzi bat erriean sartzerakoan, olatu batek ontzia istriborrera mugiarazi zuen eta malekoiaren kontra harrapatu zuen aldamenean zihoan praktikoaren ontzia; han lau lagun zihoazen, eta horietatik bi hil egin ziren, bat itota hantxe bertan eta beste bat handik hiru hilabetera, larri zaurituta egon ondoren. Beste behin, 1956an, berriz, praktikoaren ontziak itsasora irten behar zuen

zamaontzi baten bila, portura sartzen laguntzeko, eta itsaso txarraren ondorioz, olatu batek ontzia jo eta uretara bota zituen barruan zihoazen lau lagunak; ibaian arrantzan zebilen beste motora batekoek ikusi zuten gertatutakoa, eta lau lagunetatik hiru bizirik ateratzea lortu zuten.

Arrantzaleen hondoratze gehiago ere izan ziren, eta pare bat gogoratuko ditugu. Lehena, 1942ko ekainean, *San Telmo* itsasontzia, goizeko ordu biak aldera, arrantzatu

ondoren porturatzen ari zenean, Barraren parean olatu batek irauli eta uretara bota zituen barruan zihoazen lau lagunak; bat ito egin zen, eta beste hirurak (tartean Frantzisko Urrestilla *Pako Rata*) bizirik irten ziren, igerian. Bigarren gertakaria 1948ko martxoan izan zen, eta Miguel Urkidi eta Blas Meabe ito egin ziren.

Bitxikeria batekin amaituko dugu: 1908an, Timoteo Esteibarrek laguntza eskatu zion Udalari, *Martin* baporea

hondoratu zenean arropak eta beste gauza ugari galdu zituelako; Udalak hau erabaki zuen: “si bien no hay precedente de haber otorgado socorro en casos semejantes, teniendo presente de que al referido Esteibar, le sucede idéntico caso por tercera vez, ha acordado socorrerle con treinta pesetas con destino solicitado”¹¹.

Bistan da dena ez zela geratu urpean, eta gertakari batzuk atera ditugu ur azalera. ■■■



Jose Agirrezabalaga Garate *Joxelin* talaieroa lanean. Itsasontziei sartzen eta irteten laguntzen zien banderen bidez. AGIRREZABALAGA FAMILIA, JAVIER CARBALLOK UTZIA

¹ Zumaiaiko Udal Artxiboa, 69 (170V), 1787-11-08an.

² ZUA, 71.12, 1852-02-17an.

³ ZUA, 71.12, 1852-02-27an.

⁴ Traina sare mota bat da, eta hortik dator trainerua, hau da, sare hori erabiltzen zuen ontzia.

⁵ ZUA, 72.01, 1859-02-19an.

⁶ Ibidem.

⁷ ZABALA, Antonio: *Arrantzaleen bizitza*. Hemen: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/10625.pdf

⁸ ZUA, 2823 (57), 1884-03-10ean.

⁹ ZUA, 2823 (69), 1884-08-07an.

¹⁰ Hemen: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/aintzinako-lanbideak/varios-accidentes-mortales-boca-puerto-zumaia>.

¹¹ ZUA, 2833 (98), 1908-06-19an.



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretara, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN

Patxita Etkezaretara 17 • 688 71 85 38



Talaja
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
taberna

Enberrera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 • www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

ATE IREKIAK

Maiatzak 27

9:00 - 19:00

Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- AROTZERIA ETA ALTZARIGINTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA *
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- PLATAFORMA ANITZETKO APLIKAZIOEN GARAPENA SEMPRE

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak euskara hutsean

* ELEANTZTA: ziklo hauetan modulu batzuk ingelesez egiteko aukera



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!



COVID-19en eraginaren ondorioz, ikasle guztiak eraberritu eta prestatuak izango dira berriro.

www.izarraitz.eus

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII
Altamira auzoa z/g. 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 • bulegoa@izarraitz.eus



'ZUMAIA MUGARRIZ MUGARRI' LIBURUAREN AURKEZPENA

MAIATZAK 26 , 18:30EAN,
SAN TELMO ERMITAN

Egilea: Imanol Azkue
Argitaratzailea: Baleike Kultur Elkarte



ZUMAIA
MUGARRIZ
MUGARRI

IMANOL
AZKUE
ARGITATZAILA



OHARRA: LIBURUA BAZKIDEEK OPARI JASOKO DUTE



SALMENTA

Datozen egunetan Baleike.eus webgunean zabalduko da LIBURUAREN eta KAMISETEN salmentari buruzko informazioa

AGENDA

DEIALDIAK

MAIATZEKO ASTEBURUETAN

Maiatza Dantzan.

EKAINAREN 1ERA ARTE

XXXIII. Zuri-beltzeko Argazki Lehiaketa, gai librea.

ERAKUSKETAK

MAIATZAK 10-30

Zumaia: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Oxford aretoan.

APIRILAK 27 - MAIATZAK 23

Zumaia kaleko pintura lehiaketa. Herriko dendetan.

MAIATZA

7 OSTIRALA

Antzerkia: Ameriketarako bidaia, Tanttaka.
Aita Marin, 19:00etan.

8 LARUNBATA

Flamenko ikuskizuna: *Momentos*, Flamenko Katak (Maiatza Dantzan).
Zumaianan, 19:00etan.

9 IGANDEA

Bandaren kontzertua: *The rise of the firebird*.
Zumaianan, 19:00etan.

12 ASTEAZKENA

Solasaldia: *Praktikatzearen plazera eta ikustearen plazera*. Doakoa izango da sarrera, baina turismo bulegoan eskuratu beharko dira txartelak maiatzaren 8tik aurrera.
Aita Marin, 19:00etan.

13 OSTEGUNA

Zine forum: *Blanco en Blanco*. Zuz. Théo Court.
Aita Marin, 19:00etan.

16 IGANDEA

Dantza garaikideko tailerra: DAGAZ (Maiatza Dantzan).
Torreberri, 11:00etan.

20 OSTEGUNA

Zinegoak film jaialdia: *Valentina*. Zuz. Cássio Pereira Dos Santos.
Aita Marin, 19:00etan.

23 IGANDEA

Kaleko pintura lehiaketa.
09:00-14:00.

Musika eskola dantzan (Maiatza Dantzan).
Odietan, 12:30ean.

27 OSTEGUNA

Zine forum: *The Painter and the Thief* (La pintora y el ladrón, JBA). Zuz. Benjamin Ree.
Aita Marin, 19:00etan.

28 OSTIRALA

Dantza: *Biz Hitz*, Aukeran (Maiatza Dantza).
Zumaianan, 19:00etan.

30 IGANDEA

Tailer irekia: *Muxikoak* (Maiatza Dantzan).
Gernika parkean, 12:30ean.

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Uppin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTOESKOLA


Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Gaztetasunetik 'normaltasunera' hazteko bidearen kronika



JENDE NORMALA

Egilea: Sally Rooney

Argitaratzailea: ALBERDANIA

Argitaratze urtea: 2020

Orrialdeak: 311

Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Jende normala Sally Rooneyk 27 urte zituela (2018) idatzi zuen eleberria da. Arrakasta itzela lortu zuen mundu osoan eta telesail bilakatu zuen BBCk. Bada nobela autobiografikoa dela dioenik.

Marianne eta Connell dira nobelaren protagonistak. Bi nerabe, lore izatera iristen ez diren bi kimu, bi lore begi. Institutuko bi ikasle. Connell lagunaren artean arrakasta handia duen atleta da. Mariane, berriz, ezberdina da: isila, eta ez du lagunik. Baina aberatsa da, Connell ez bezala.

Marianne ahartetxo itsusia da, baina aldi berean zisnea ere bada. Hoztasun eta axolagabekeria aire bat badu, eta, gainera, ikaragarria da. Bere familian tratatu txar emozionalak eta fisikoak ere jasan izan ditu. Eta uste du ez dela gai maitatua sentitzeko.

Bien arteko erlazioa oso berezia da. Primitiboa eta sarritan toxikoa. Ez dute lotura

erromantikorik. Biak ala biak dira elkarren salba gailuak, tunel beltzean galduta daudenean.

Liburua maitasun istorioa baino askoz gehiago ere bada. Funtsean, munduan (eta amodioan ere bai) leku bila dabilzan bi gazteren istorioa da: munduan eta amodioan bizi dituzten beldurrak, ezinak, gaizki ulertuak, konplexuak... Esango genuke gaizki ulertuek eta komunikazio ezinak zapuztutako maitasun istorio sendoa baina ezkutukoa dela.

Orainaldian idatzita dago nobela eta narratzailearen ahotsa aldian Connellena izango da eta aldian Mariennena. Bai batak, bai besteak, bi protagonisten pentsamenduak, sentimenduak eta kezkak, egonezinak eta arrangurak sakontasunez ezagutaraziko dizkigute.

Pertsonaia errealak, edozein pertsona bezain simple edo konplexuak. Ez da ez heroirik ez eta bilaurik. Ez dago pertsona perfekturik. Marianne eta

Connell pertsona inperfektuak dira, ziurtasunik gabeak, akats ugari egiten dituzte, baita elkarri mina egin ere, eta sufritu ere egiten dute. Eta inkomunikazioa da bi gazte horien arteko benetako arazoa.

Rooneyk hainbat gai eta obsesio partekatzen ditu: klase sozialen arteko kontrasteak, Elizaren eragina gizartean, eta nerabezaroan hain presente ditugun bakardadea, galera edo eta ziurgabetasuna. Sexuari buruzko pasarte beroak eta gorabeheratsuak ere badira eta masokismo sexuala ere presente dago narrazioan.

Laburbilduta, liburu ederra da *Jende normala*. Ez da, beharbada, liburu aparta, baina kontakizunaren erritmo oso egokia du eta irakurtzeko irrika sortuko digu bukaera arte. Oso erraz irakurtzen den liburu dugu, eta aproposa irakurle guztiontzat, nerabea izan edo ez.

Nobelak ertz ugari ditu, irakurle, zerorrek ikusiko duzu nondik heldu nahi diozun. ■■■

Truman Capote burura



JUANMA GURRUTXAGA ZUBIZARRETA

Bai, askotan gertatzen zait... Eguneroko bizitzan gertatzen zaidan zerbait irakurri edo pantailan ikusi dudan pasarteren batekin lotzea... Lotura automatikoak, *kank* horietakoak. Hau Capoteren *Kamaleoientzako musika* liburuan datorren *Egun bateko lanarekin* izan dudana *kanka*. Izugarri gustatu zitzaidan orain dela hiru hamarkada Truman Capoteren liburu hori eta tarteka berriro irakurri izan dut; liburu osatzen duten kontaketak nahiko fresko dauzkate nire buruan, eta ez pentsa hori beti gertatzen zaidanik. Aipatzen dudana kontaketa hori 1978ko New Yorken gertatzen da. Capotek, etxeak garbitzen lan egiten duen Mary Sancheziz harekin etxez etxe joaten uztea eskatzen dio eta halaxe egiten dute. Maryk 57 urte ditu eta nahiko bizimodu gogorra darama. Baina, berak dioenez, Eliza Katolikoak bere bizitzari emandako distirak laguntzen dio bizitzan.

Badoaz biak etxez etxe eta Maryk etxejabeei buruz egin dituen perfilak, haien etxeak nola dauden ikusi eta berak ateratzen dituen ondorioak

gustura irakurtzeko modukoak dira. Garbiketa bukatzen duen aldiro, eta nahiz eta berak señoia serioaren itxura izan, kanuto bat ateratzen du poltsatik –nekea arintzen laguntzen omen diote–. Capotek zupada pare bat ematen dio, baina berarentzat gehiegi da, eta ezin du ulertu andre hori itxuraz, behintzat, ondo mantentzea. Momentu batean, galdera hau botatzen dio: “Mary, hitz egin al duzu inoiz honetaz zure konfesoarekin?”. Hark erantzuten dio: “Ez dakien bitartean ez dio minik emango”.

Neuri, bizitza errealera etorrira, orain dela gutxi eman dizkirate sei hilabete behin egiten ditudan analisisien emaitzak. Neure burua zaintzea gustatzen zait, baina aparteko ezer egin gabe; pisua eta ondo mantentzea, nire kasuan, ez da zaila egiten zaidan zerbait.

**NEURE BURUA
ZAINTEZA GUSTATZEN
ZAIT, BAINA
APARTEKO EZER
EGIN GABE**

Bainaaaa, tartean ginebra txukun bat hartzea gustatzen zait, eta halaxe, ba, Tanqueray botila bat erosi nuen afalostean kopatxo bat lasaai hartzeko. Horrela, hiru edo lau astez... Total, guztira bi botila, eta besterik ez, e!

Kontua da analisisien emaitza telefonoz eman zidala nire medikuak –agur bat hemendik, Von Wichman jauna!–, eta horrela esan zidan: “Juanma, dena oso ondo dago, defentsak eta abarrak dena ondo, BAINA transaminasak pixka bat mugituta. Aparteko alkoholik hartu duzu?”. Eta nik, eta hemen Capoteren kontaketa burura: “EZ, EZ, betiko moduan, ardoren bat edo beste. Besterik EZ”. “Baliteke orduan beste zerbaitena izatea”, eta hitz egiten segitu genuen.

Horrelaxe, ba, literatura eta bizitza. Portzierto, ezin aipatu gabe utzi Tom Spanbauer handiak sardina bokatak jaten bere burua nobela batean irudikatu zuenetik neuk gogotsuago eta sarriago jaten ditudala. Besterik ez gaurkoz, irribarreraren bat atera badizuet, ni gustura. Gora Capote, gora Spanbauer era gora Von Wichman! ■■■

Pepe



JUAN LUIS ROMATET

Honaino heldu zarete, zenbaki honen azkenera, bukaerara. Edo, akaso, nik bezala, atzetik aurrera irakurtzen dituzue egunkariak-eta? Dena dela ere, segi aldizkariaren erdialdera. Beste orri bat pasatu, beste bat, hortxe! Pepe karteroaren erretratua da, Irimarrak egindako ilustrazio ederraz jantzitakoa. Ez, ez, ez noa artikulua hori goraiatzera, nahiz eta nik idatzitakoa den. Horixe faltako zitzaidan!

Aspalditik ezagutzen dut Pepe. Kale berean bizi izan gara urte askoan –San Josetik Basadira mugitu da–, eta bai, *nire* karteroa izan da, edo da. Gizon ona, umila, eta erretratuan bertan dioen bezala, betiere faboreak egiteko prest dagoen pertsona. Bai, niri ere faboreak egin izan dizkit Pepek urte hauetan guztietan.

Tokadisko berria erosita, eta July lagunak hala animatuta (bultzada handirik ez nuen behar, ez ezazuela hori zalantzan jarri), diskoak erosi eta erosi hasi nintzen, frenorik gabeko kultur kontsumismoaren tsunamian. Batzuk inguruko herri edota hirietako dendetan erosten nituen, baina gehienak Internet bidez: Ingalaterratik, Eskoziatik, Madrildik, Alemaniatik... Mapamundiko leku askotara heldu ziren nire erosketa eskaerak. Disko berriak, bigarren eskuoak, LPak, singleak, CD gutxi batzuk, denetik.

Agian beste postari batek abisua utziko zuen buzoian, paketea Correosen Zumaiako bulegoan zegoela, eta handik pasatzeko zioena. Pepek ez; Pepek etxeraino ekartzen zizkidan paketeak. Ordurako banekien zer ordu aldera heltzen zen gure kalera; 10:30ak edo 11:00k aldera agertzen zen kalean karro horiari bultzaka. Gutunez eta paketez betetako karroa aldameneko atariaren ondoan jarri, eta etxez etxeko banaketa hasten zuen. Gure etxepera heltzean, txirrina jotzean, bi aukera izaten ziren: “Cartero” soila, edo “Juan Luis, baja que tengo un paquete para ti”. Poz-pozik jaisten nintzen erositako azken diskoak jasotzera. Eta ez zegoen egunik Julyren mezurik gabe: “Zer, pasa al da Pepe? Galdetuko diozu ea niretzat zerbait baduen?”. Berak ere bazekien karteroak zer ibilbide zuen, eta askotan bide erdira ateratzen zitzaion, eskatutako diskoen bila.

Pepek oporrak hartzen zituenean, nerbioetatik jartzen ginen biok haren ordeko postariak beste ordutegi bat zuelako, egunen batean kaletik pasatzen ez zelako, edota askotan, paketeak etxera ekarri beharrean, buzoian abisua uzten zuelako. Gaizki ohitutako jendea ginen gu. Diskoak erosteko nire beroaldia apaldu zen halako batean. Jarraitzen dut diskoak erosten, baina ez lehengo abiadan, eta Pepe izan zen konturatu zen lehena. “Zer, dagoeneko ez al duzu diskorik erosten? Lanik gabe utziko al nauzu?”, zioen txantxetan. Agian helduko da une hori (ez dut uste), baina oraingoz lana emango diot Pepe karteroari. ■■■

**BESTE POSTARI BATEK
ABISUA UTZIKO ZUEN
BUZOIAN; PEPEK
ETXERAINO EKARTZEN
ZIZKIDAN PAKETEAK**

Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etkez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com



HARTU
HITZORDUA!!



Ate irekiak

Maiatzak 12



Erdi Maila: 16:00 - 17:30

Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 15



Erdi Maila: 10:00 - 11:30

Goi Maila: 11:30 - 13:00



943-36 46 00



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net

Idoia

ARDOTEGIA



Julio Beobide, 2
943-57 49 86